



TXISTORRAREKIN HASTEN DEN FESTA

Ostegun Gizenean hasten dira Inauteriak, eta egun horretan txistor jatea egiteko ohitura egoten da 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-02-01
VIURTEA 1.351.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

HAUSTERRERA ARTE JAIA!

INAUTERIAK 2008 Atzo eguerdiko pregoiak eman zion hasiera sei eguneko etenik gabeko festa handiari

OSTIRAL MEHEA Txistularien kalejira, xexen festa eta Arpegi taldearen ikuskizuna izango dira, besteak beste 2-7



Jendetzak eman zien eguerdiko 12:00etan ongiatorria, Plaza Zaharrean Tolosako Inauteriei. N.URBIZU



A Argazki zaharra



1945ean Julian Gastesi eta Rufino Iturriotz

TOLOSA Argazkian, Tolosako zezen-plazan 1945eko Inauterietan, Julian Gastesi eta Rufino Iturriotz azaltzen dira. Plaza gainezka eta beraiek buruhandiz jantzita. (Jesus Eloseguren 1907-1979 argazki bildumatik aterako argazkia).

» GARRAIO PUBLIKOA

GAUR

■ **Hiribusa.** Ohiko ibilbideak egin-go ditu eta azken bidaia 22:00etan izango da.

■ **Tolosaldea Bus.** Gaueko zerbitzu berezia:

- Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre-Amarotz- Alegia- Amezketakaztegieta 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean.

- Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre-Amarotz- Ibarra- Berrobi- Eldua- Elduain- Berastegi 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean.

■ **TSST.** Zerbitzu berezia:

- Tolosa (Santa Klara)- Anoeta- Irura- Villabona- Zizurkil- Asteasu 23:30etik 04:30era 30 minutuero.
- Asteasu- Zizurkil- Villabona- Irura- Anoeta- Tolosa 23:00etatik 04:00etara 30 minutuero.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

GAUR

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

BIHAR

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

«Musika Bandaren kontzertuan 'Diana' entzutean malkoak atera zitzaizkidan»

ANA ARRETXE | Inauterizalea

I. GARCIA

Ana Arretxek (Tolosa, 1969) asko bizitzen ditu Inauteriak. Ikusi besterik ez dago, berak azaltzen duen bezala, nola hunkitu zen Musika Bandaren Inauterietako kontzertuan.

Zer dira zuretzat Inauteriak?

Pasatzen duzu urte bat desiatzen Inauteriak etortzeko. Niretzat zer diren? Ba, lehengoan, Musika Bandako kontzertuan *Diana* entzutekoan oilo ipurdia jarri zitzaidan eta malkoak atera zitzaizkidan. Tolosako gauzarik handienetakoa da.

Zein izaten da zure plana Inauterietan?

Haurrak izan ditudanetik aldatu egin da pixkat, baina betidanik gustatu izan zait egunez ateratzea. Pentsatzen dut tolosarrei galdezen badiozu berdina erantzungo luketeela. Orain, haurrekin, bakarrik konformatu behar naiz egunez ateratzearekin. Beste era batera gozatzen duzu: ikusten haurrek nola gozatzen duten, batzutan agobiatzen badira ere, txarangare-



Ana Arretxe, bere alabetako batekin soinean. HITZA

kin arratsaldeko jaitsiera beti egin behar izaten dugu, goizez paseatu pixkat...

Koadrilan ere ateratzen zarete?

Haurrak ez genituenen koadrilarekin ateratzen ginen eta orain koadrilaren zati batekin beste koadrilatxo bat egin dugu haurrekin

ateratzeko, plan lasaia go batean: txipiak hartu, bermuta...

Karroza edo plataformarik ateratzen duzue?

Batzutan eduki izan dugu plataforma txiki bat haurrak errazago eramateko, baina azkeneko urteetan ez dugu atera.

» MOTZ-MOTZEAN

Egunik onena? Zaila da erantzutea. Bat esan behar bada, astelehena.

Txaranga doinu bat? Galtzaundi.

Mozorro bat? Nik zer dakit zertaz mozorroa gustatzen zait. Urte batean mukiz mozorrotu ginen eta oso ondo pasatu genuen.

Hausterre Egunean? Tristura.

Kalea ala taberna? Kalea.

Prestaketak nola egiten dituzue?

Aurten nahiko gaizki ibili gara eta erreziklapen bat egin dugu. Aurreko urteetan elkartzten gara udazkenaren bukaeran eta zertaz mozorrotuko garen erabakitzen dugu.

Eta mozorroak?

Batzuetan josi, besteetan erosi, urte batean eskatu genion nire aitari Indiatic sariak ekartzeko... Niri Astelenitan gustatzen zait *nik zer dakit zertaz mozorrotzea*, hau da, ahal dena gainean jantziz. Igan-dean eta asteartean koadrilan ateratzen gara.

Inoiz izan zara Tolosatik kanpo Inauterietan?

Uste dut behin bakarrik izan zela. AEBn pasatu nuen urte bat eta nola urruti negoen ez nuen asko sufritu. Baina bai gogoratzen dudala, urte batean, lan egin nuela eta trenetik atera nintzela justu txarangak zezenetatik ateratzen ari zirela. Ez dakizu zer beheraldi sartu zitzaidan. Etxean sartu eta ezin aterata gelditu nintzen.

Nola igarotzen duzu egun bakoitza?

Ostegun Gizenean normalean lan egitea tokatzen zait eta ez naiz asko ateratzen. Ahal dudanean jai hartu eguerdian eta ateratzen naiz pixkat txarangarekin. Ni igandean hasten naiz. Danborrada ez zait asko gustatzen. Ahal badut dianara joaten naiz, aspaldi ez banaiz joan ere. Gero mozorrotzera, gizean atera, gero haurrekin batzuetan zezenetara edo txarangak ateratzen direnean zezen-plazatik. gaueko parrandak dagoeneko ahaztuta dauzkaz, baina ez dit pena handirik ematen. Astelenitan eta asteartean antzera ibiltzen gara. Asteartean, hori bai, pattar zezenatik txaranga ateratzen denean ere hori izaten gara.

Zer bait aldatuko zenuke egitarautik?

Ez, nik nire Inauteriak egiten ditut. Nik uste txarangarekin eta mozorroarekin nahiko dudala.



Inauterizaletasunean trebatzen

Inauteriak » Ostegun Gizenean, Tolosan Inauteriak hastearrekin batera, eskualdeko hainbat herritako ikastetxeetan jaialdiak egin dituzte.

IMANOL GARCIA

Txikitatik ikasten duguna errazago barneratzen dela esan ohi da. Hala bada, inauterizaletasunak etorkizun oparoa izango du, eskualdeko ikastetxe guztietan Inauteri jaialdiak nola antolatzen dituzten ikusita.

Eskolako komunitate guztia bustitzen da eginkizunean. Ikasle eta irakasleak koreografiak, antzerkiak... ikuskizunak prestatzen eta gurasoak mozorroak egiten edo eskuratzen.

Atzokoan, Ostegun Gizenarekin batera eskualdeko herri haue-

tan egin zituzten jaialdiak: Tolosako hiru eskoletan, Bidegoianen, Berrobin, Ibarren, Abaltzisketan, Iruran, Villabonan bi ikastetxeak batera eta Ikaztegietan. Anoetako eta Irurako Ikastolek asteazken arratsaldean egin zuten jaialdia.

Gaur ere jaialdiak

Gaurkoan ere hainbat eskolen txanda izango da. Hala, Adunan (15:00), Alkizan (14:30), Ameztan (15:15), Asteasun (15:15) eta Zizurkilan (15:30) izango dira.



Villabonako plazan eman zuten ikuskizuna ikastetxeetako ikasleek. HITZA



Bidegoianen mexikarrez jantzita kalejiran ari ziren eskolakoak herritik zehar. HITZA



Ikuskizun handia prestatu zuten Abraham Olano kiroldegian Anoetako eta Irurako ikastoleetakoek. HITZA



Tolosako Samaniegon mozorro ugari ikusi ahal izan ziren. HITZA



Tolosako Laskorain Ikastolan, adinen ezberdinetako haurrak mozorrotuta. HITZA



Ibarroko Uzturpe Ikastolakoak mozorrotuta ikastetxearen aurrean. HITZA



Berrobiko ikasleak txarangaz jantzita. HITZA



Abaltzisketan Aralar elurtuaren ikusten zela ospatu zuten. HITZA



Tolosako Hirukide eskolakoak San Frantziskotik kalejiran. HITZA



HASIERA POTOLOA

Gizartea Plaza Zaharra lehertzaren atzo, aurtengo Inauterietako lehen ekitaldi ofizialean.

LEUZALDEKO INAUTERIAK
Jendekia gogotsu zegoen. Txikiak eta buzoak amaitu eta berriak berri ere soinetan jartzeko irrikaz.

Herriarrek inoiz baino gutxiago itxaron dute, baina tolosarrek jada nahai zituzten. Inauteriak gailuean, atzoko eguerdiko txupinazoen ere entzun baitzen.

Kolore guzietako buzoak zeuden Plaza Zaharrean (eta ez horrenbeste txupinazoren zain. Konfietak, goxokiak eta arrautz batzuk ere ikusi ahal izan ziren atsean. Plazan ez zeuden inguruko balkoietatik jarraitu zuten bertako ikuskitzuna. Hauxez gain, beste hainbat lagunek zerkasako kichoetarik ikusi zuten giroa. Dударik gabe, aurtenean txiki gigeratu da Plaza Zaharra, erreka-aren beste aldean jendekia ere izanik.

Herriarrek inoiz baino gutxiago itxaron dute, baina tolosarrek jada nahai zituzten. Inauteriak gailuean, atzoko eguerdiko txupinazoen ere entzun baitzen.

Kolore guzietako buzoak zeuden Plaza Zaharrean (eta ez horrenbeste txupinazoren zain. Konfietak, goxokiak eta arrautz batzuk ere ikusi ahal izan ziren atsean. Plazan ez zeuden inguruko balkoietatik jarraitu zuten bertako ikuskitzuna. Hauxez gain, beste hainbat lagunek zerkasako kichoetarik ikusi zuten giroa. Dударik gabe, aurtenean txiki gigeratu da Plaza Zaharra, erreka-aren beste aldean jendekia ere izanik.



esaterako «Metro bankoak hura izango dutenez», gauza asko egin ahal izango dira. Kabi Alai elkarteak aurtengo pregoi motza irakurri dute, arina eta ulerterraza.

Txosnak ere bai
12.30a aldera Euzkadi Herria plazan txosnako ekere txupinazoen bota dute, eta homela txosnaren irekiera izanda. Berriro berrerailetzeko edalontziak jarri dituzte, gutxiago zikintzeko eta edateko ere erosoago izanik. Txistorra ere eskaini zuten bertan, musika eta gazti karpa handi baten babesean.

Txistorra nonahi
Taberna eta gaztarian txistorra eskaintzen dute urtero, eta hori herriarrek eskertu egiten du. Aurtengo digite huts egin dute berriak eta tolosarrek ez zuten bukadatu behar izan, bapero iritsiko baitziren siera egitera aseturik (siera egitera joan zenik ba ote da?). Kilometroak 09 Iruan egongo da aurtengo Rondilla eta Arostegeta kaleen artean dago.

Dantzariek eta txosnagok ez dute beharrik ez dute inauterian, baina dute eta giro alai eta ederrean eskaintzeko nerbioa. Txosnagok jendekia bilizten, ia Tolosako errekintzar har dutekeen betiko doinu alaiak kantatzen.



Kabi Alai elkarteak pregoiaren unean, udal bako balkoian. | TOLOSA 2020

Txupinazoren ostean txupina ere ireki zuten batzuk. | TOLOSA 2020



Ostegan Gizenekin batera Galtzundik ere agerraldi egin du, eta ikusgai izango da Inauterietako egunetan Triangulo plazan. | URZUA



Egunerdi egin zuten txupinazoen Txosnaganean, Adak bot, borroko ere bai! lelopean. | TOLOSA 2020



Zezen-plazara zabaldu zen festa atzo arratsaldean. | URZUA

Erremontarri Kalea, 2/G • TOLOSA
Tel. 945 67 16 30



Migel Mari Elosegí, BERRIA

Riaño eta Elosegí Nafarroako Bertsolari Txapelketan lehiatuko dira

Leitza » Lehen kanporaketa hilaren 8an izango da Leitza; bi leitzarrek hartuko dute parte.

ERREDAKZIOA

Datorren asteartean jokatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa. Aurtengo txapelketan bi leitzarrek hartuko dute parte, Diego Riaño eta Migel Mari Elosegí.

Diego Riaño Leitza bertan lehiatuko da lehen kanporaketan. Berarekin batera bertsoetan ariko dira: Juan Mari Lopez, Iker Iriarte, Ekaitz Astiz, Aimar Karrika eta Iñaki Aleman.

Migel Mari Elosegí berriz, zuzenean finalurrekoetan izanen da. Honekin batera, saio bererako sailkatuta daude, Jon Barberena, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe eta Aritz Saraguet.

Saillapen sistema

Kanporaketa bakoitzeko lehena zuzenean sailkatuko da finalurrekoetarako. Gainerako hirurak puntuen arabera. Finalurreko bakoitzeko lehena zuzenean sailkatuko da finalerako. Gainerako bostak lortutako puntuen arabera.

Finala zortzi bertsolarik jokatu dute. Hau, martxoaren 15ean izango da, Elizondon. Lehen bier artean bost puntu edo gutxiagoko alde bada, desentzate jokatu dute.

Egin beharreko lana

Txapelketako sail bakoitzean lan ezberdina egin beharko dute bertsolariek. Kanporaketetan honako hau egin beharko dute: Zortziko handian binaka gaia emanda hiruna bertso osatu arte; zortziko txikian binaka ofizioka hiruna bertso osatu arte; zortziko txikian bi puntu irerantzun eta gaia emanda, bakarka bi bertso.



Boluntarioen artean egiten dituzte sukaldatze eta zerbitzari lanak; irudian, antolatzaileetako batuk, Abastosen. HITZA

Elkartasuna eta jaia bat eginik, Inauterietan ere

Inauteririk » Amnistiaren aldeko mugimenduak sagardotegia ipini du Abastosen; ateratako dirua presoei laguntzeko da.

ESTI EZEIZA

Sei egunetan zehar, sagardotegi itxura hartuko du Abastos plazak. Duela bederatzirte hasi ziren Amnistiaren aldeko mugimendukoak hau antolatzen, eta atzo berriro ireki zituen ateak. Ernio, Uzturre eta Txindoki izeneko kupeletatik edateko aukera izango da bertan. Eta honi laguntzeko, nola ez, sagardotegietan falta ezin diren bakailo tortila eta txuletak, besteak beste.

Aipatu bezala atzo gauean ireki zituen ateak eta asteartera arte egongo da zabalik. Igandean ezik, gainontzeko egunetan afariak zerbitzatu dituzte, eta Zaldunitan, bazkariak ere bai. Antolatzaileen esanetan, «azken hau izaten da jendetsuena». Hala ere, bertara joan nahi dutenek ez daukate aurretik izena eman beharrik, momentuan edo ordu pare bat lehenago abixatuta nahikoa da. Presoen aldeko mugimendukoek adierazitakoaren arabera, «orain arte ez dugu arazorik izan lekuarekin, nahiko handia da eta moldatzen gara». Denaden, egunen batean arazoren bat izanez gero tokiarekin, aurretik izenak hartzen hasiko direla ohartarazi dute.

Denera, 200 lagun inguru sartzen dira Inauterietarako bereziki atontzen duten jangela honetan. Joan den urtean, orotara 800 otordutik gora zerbitzatu zituzten. Presoen aldeko mugimenduko kideen esanetan, «urteik urtera jende gehiago etortzen da eta igandetan batez ere, eromena izaten

da». Gainera, horietako asko ez dira eskualdekoak, hau da, kanpotik etorritakoak dira.

Sukaldatze eta zerbitzari lanak boluntarioek egiten dituzte. Hala, afari bakoitzean 15 lagun aritzen dira.

Bederatzigarren aldia

Duela bederatzirte hasi ziren antolatzen presoen aldeko sagardotegia. Ordura arte txosna ipintzen zuten, baina jende asko behar zelakoak, eta beste faktore batzuegatik, aldatzea erabaki zuten. Izan ere, antolatzaileek azaldu bezala, «gurekin beti lanean eta gauzak antolatzen aritu diren asko, helduak dira jada, eta gauean baino, nahia-gu dute egunez lan egin». Horregatik, sagardotegia jartzearen ideia egokia izan zitekeela pentsatu zuten. «Erazagoda da horrelako lanetan jartzea jende hau, eta gainera, nolabait implikatzea ere lortzen dugu» esan zuten ere. Egun, gustura daude hartutako erabakiarekin, ongi lan egiten baitute egun hauetan, eta gero eta jende gehiago joaten baita bertara afaltzera.

Oro har, jendearen erantzunarekin gustura badaude ere, ostegunean gehiago joan behar lukele uste dute, «harriz gaudere, gure ustez, jende gehiago etorri behar bailuke Ostegun Gizenean» diote. Bestalde, aipatzen dutenez, Inauterietan hau da aurrera eramaten duten ekimen bakarra. Esperientziarik erakutsi baitie, «jaietan horrelako jarduerak arrakastatsua goak dira, batzar informatibo, hitzaldi eta abar baino».

Presoen aldeko laguntza

Abastosen kokatuta dagoen sagardotegian ateratzen diren irabaziak euskarri proiektu laguntzeko da. Amnistiaren aldeko mugimenduko

kideek azaldu bezala, «presoen beraien gastuak ez ezik, abokatuak eta abar ere ordaindu behar dira, eta honek gastu handia suposatzen du espetxean dagoenarentzat eta bere senideentzat». Hala, jendeak ordaintzen duenaren zati bat, jakiak, edariak... ordaintzeko da, eta gainontzeko irabaziak berriz, euskal presoei, orokorrean laguntzeko. Presoen aldeko mugimendukoek aipatu bezala, «askok galdetzen dute ea diru guzti hau nora doan, baina presoei bizi egin behar dute. Pertsona bat kartzelan 20 urtetan badago, honi norbaitek abokatua ordaindu behar dio, eta horretara bideratzen da dirua». Diru guztia zuzenean ez da kartzelan dagoenarentzat, baizik eta honi laguntzeko, zeharka bada ere.

Tolosan jartzen duten sagardotegiaz gain, urtean zehar, beste hainbat jarduerak ere egiten dituzte dirua biltzeko. Horien artean, beste herrietako jaietan, txosnak ipintzen dituzte.

Euskal presoen egoera

Amnistiaren aldeko mugimenduko kideen esanetan, «euskal presoen egoera gero eta okerragoa da, kanpoan daudenena nahiz barruenean». Horren adibidetzat aipatu zuten Pello Odriozola. «Tolosarrak 20 urte daramatza kartzelan, eta uztailean kalera atera behar luke berez. Odriozolari Parot Doktrina ari zaizkio aplikatzen, hori dela eta zigor guztia bete beharra dauka. Honen bestez, uztailean kondena guztia beteta izango luke, kartzelatik atera behar luke. Baina inork ez daki aske utziko ote dute edo beste hamar urte igaro behar ote dituen espetxean. Berak ez du inongo itxaropenik». Pello Odriozolaz gain, eskualdeko beste presoen egoera ere gaitzetsi zuten.

Inauterien 10 aginduak



» Iritzia

Joxemi Saizar

Inauterizale asko daude inguruan. Urte guztian jai hauen zain egoten dira. Baina inauterizale peto petoa izateko 10 mandamentu hauek jarraitu behar dira:

1. Txistorra neurrian jango dut Ostegun Gizenean. Zergatik ikusten da hain zakur gutxi aurreko egunetan? Taberna batean 200 kilo eman omen zituzten. Atera Tolosa osoko kalkuluak.

2. Ez naiz mozorrotuko Zaldunitako Diana baino lehen. Ostiral Mehean eta Zaldunita bezperan azaltzen diren bakero, printzesa, spiderman eta erromatarrak paisajearen zatia dira, baina beti kanpotarrak izaten dira.

3. Salto egingo dut txarangean atzetik, tokatzen denean aurreraka, tokatzen denean atzeraka. Ahazten ari zaigu. Hori ere erakutsi egin behar alda?

4. Musikari bezala, ez ditut Inauteri piezak korrika joko. Kanpoko musikariei leporatzen zaie hori, baina ez dakit ba...

5. Karroza eta konpartsetan lehenatasuna emango diet orjinaltasun eta grazia. Gustu txarreko imitazioak edo dantza aspergariak ugaltzen ari dira.

6. Zezenei ez diet arretarik edo isatsetik helduko. Zezenekin jolastu egin behar da, ez adarrik!

7. Dianara eta Alboradara joango naiz, tolosar on gisa. Nahiz eta goizeko ordu horietan, asko kostatu batzuetan.

8. Eguneko ekitaldiak bizituko ditut. Bada zertaz gozatu egun osoan zehar, herriko txoko guztietan. Gauean badakizue...

9. Ondo pasatzen saiatuko naiz, baina inorekin pasatu gabe. Pixa egiten ez badakizu, ez edan. Festak ez du esan nahi sudur puntan jarritako guztiak egin daitezkeenik.

10. Hausterre Egunean txarangean doinuk buruan sartuta izango ditut oraindik. Lo egiteko aprobetxatu, ahal bada. Hori ere programan sartu beharko lukete.

@ Bideoak. Gure webgunean bideoak atalean sartuz gero, eta Inauterietako egunetan zehar azken ordukoetan begiratzuz gero, Tolosa eta Tolosaldeko herrietan aurkituko ditugun Inauteriei buruzko irudiak eta bideoak ikusi daitetzke. Baliteke horietako batean zu agertzea... Bestela ere, urteko edozein sasoi tan nahibeste alditan ikusi ditzake, nahi dituzunak.

www.tolosaldeko-hitza.info



Ikastola eta eskoletan zegoen goizean. Taberna, kale eta txoznetan 12:00etatik aurrera. Txistorraren inguruko hausnarketak Inauterien lehen egunean.

Ostegun, txistor egun

ASIER IMAZ

Ostegun Gizona, atzoko eguna, Tolosako Inauterien lehen eguna, txupinazoaren eguna eta nola ez, txistorraren eguna.

Dastamenaren eguna

Tolosako instituzio nagusiak, Udalak, urtean behin izaten diren Inauteriei 12:00etan eman zion hasiera. Urtero bezala, jaietan ongi pasatzeko deia egin zuen eta txar-rangak txupinazoaren danbatekoari lekua hartu zion.

Bertan bildu zirenak gose eta egarriz ikusten ziren, mozorro, txilaba, buzo eta kaleko arropaz jantzirik. Danbatekoaren ostean, taberna inguruak jendez bete ziren, dohainik eskaintzen zuten txistorra dastatzeko garaia baitzen; dastamenaren eguna.

Goizean haurrak eskualdeko eskola-ikastoletan txistorraren inguruan dantzan hasiak zeuden. Eguerdian, kaleetan, tabernetan eta txosnetan txistorra nagusitu zen. Zergatik ohitura hau ordea? Batek daki. Bada Donostian (Gipuzkoa) salda banatzen zuten, hemen txistorra banatzeari ekin ziotela esaten duenik. Beste batzuk, usadioetara jotzen dute galderei erantzuna eman nahian; «txerria hiltzeko garaia da negu parte hau. Lehen abadeari, medikuari, alkateari, auzokideei eta familikoei ematen zitzaizkien txerriaren zatiak. Inauteriak txerria hiltzen den garaian ospatzen direnez, ohitura zahar hura garatuz joan da eta orain tabernetan banatzen dute txerriak». Inguruko jendeari eta jende inportanteari banatzetik, herritar ororen artean banatzera eraman du ohitura, garapenak.

Instituzioak ongi pasatzeko deia eginaz; gose eta egarriz dagoen

jendeak jana doainik eta usadioen garapenak herritar ororengan berdintasuna ekartzen duen eguna? Argi dago Inauteriak bezala, txistor eguna ere urtean behin bakarrik dastatzen dela.

Txist eguna

Ez da oraindik txistor zukurik asmatu. Txistor egunean eztarria bustitzeko edo txistorrari bultzada bat emateko, barrara joan eta txist egitea nahikoa da. Tabernatik kanpo ere txist batez iturritik ura irtezen zen atzokoan; egun txist bitxia benetan atzokoa.

Goizean ikastolek eta ikastetxe-ek jai egin zuten. Tolosako Udaleko hirugarren sektoreko langileak ere kalean zebiltzan, eta bigarren sektoreko langileek ziur egunen bat gorde dutela gutxienez Inauterietarako. Izan ere, «bakean eta umorean pasatzeko egunak dira», eta hori lortzeko modu bakarra, eguneroko bizia etetea dela dirudi; «Gelditu da denboral!» esango luke batek: «Iritsi dira Jaiak!».

Neurrien eguna

Taberna, plater edo pintxo batetik bestera, txistor neurri ezberdinak aurkitzen ziren Tolosan.

Zukuek ere neurri ezberdinak zituzten eta jendearen tragoek ere bai.

Lehen eguneko mezuak ere neurri ezberdinetakoak ziren eta neurriekin loturik zegoenik ere bazegoen Tolosako kaleetan: «Errebeldia ez da porro eta marretan neurtzen».

Gaurtik aurrera, txistorraren neurriak baino garrantzi handiagoa izango du txistor egunaren neurriak edo Hausterrerarteko egunen neurriek. Beti esaten diren gauzak izanagatik, esaten jarraituko diren gauzak dira. Txistor edo txist eguna ez bezala.



Kalean, tabernetan, ikastola edo ikastetxeetan txistorra nagusi atzokoan. A.IMAZ



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	OSTARTEAK
ARRATS.	ESTALIA
BEROENA	11°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Tolosako tabernarien lana, goraiatzekoa

Lehertu da jaia! Ostegun Gizona pasata, jai giroa nagusi da Hausterre Eguna arte Tolosako kaleetan. Baina batzuk ongi pasatzeko, argi dago beste batzuk lana egin behar dutela. Horregatik lehen egunean, gure *Gora* aurtengoan tabernarientzat da. Parranda posible egiten duten tabernarientzat, guztia jasaten duten tabernarientzat. Animo! N.URBIZU

Tolosako ikurra eta festatik kanpo?

Jende guztia Plaza Zaharrean bildu zen 12:00etarako. Jaiak bertan egin zuen eztanda. Eta bitartean, Tolosako ikurra den Galtzaundi Trianguloko leihora ateratu zuten. Zergatik utzi dute Galtzaundi festatik kanpo? Berak ere nahi du Inauteriez gozatu baina bakarrik utzi dute, izan ere Ostegun Gizeneko jaia ez zegoen bertan... N.URBIZU




A Agurrak



Zorionak!

Joakina eta Pedro.


Gaur 57 urte ezkondu zinetela. Zorionak etxekoan partetik.



Urte askoan!

Nahia Ortiz Vicente (Larraul).

Gaur bi urte. Zorionak aita, ama eta Inhar anaiaren partetik.



Urte askoan!

Nahia Ortiz Vicente (Larraul).

Gaur bi urte. Zorionak sorgina etxeko guztien partetik.



Urte askoan!

Zorionak Inaxio. Emazte, alaba, suhil, biloba eta batez ere zure seme Iñigoren besarkada bat.